

# Indar aundi biak

Maitasuna eta gorrotoa ¡Gorrotoa eta maitasuna!

Zein gogorragoa? Zein altsuagoa? Zein sendoagoa?

Batari begiratu, eta berak dirudi. Besteari begiratu, eta besteak.


Izan be, munduko indar aundi onen joko soka-tira bat dirudi. Batean bata jo ta be, garaille bakarra lez; eta gitxien uste dogunean estroposu ondangarria. Garai-ua egoala uste genduana, arerioaren gane-rik pasa eta pauso gogor eta sendoan ikus-ten dogu.

Zein da ba Altsuagoa? Auxe mundu one-  
tan sekula jakingo ez dogun beste egi bat.

Goethek edertasun eta garbitasunatzaz  
ditiõna esan bearrean aurkitzen gara alan  
be: eskuak emonda lur onetan ez doguzala  
basiko. Bein edo bein bide bardiñean aur-  
kitzen badira, atzea laster emongo dabela,  
eta bide bana artuko dabela; bata, garbi-  
tasuna naigabetuta; eta bestea, edertasuna,  
arri eta burua ondo jasota.

Kain zantarrak bere anai zintzo Abel il-  
dhanetik ona, gorrotoaren indarra itzala eta  
beste guztietan ikusten dana da. Gerratiak  
dira egi aundi onen agerpenik garbienak.  
Iatori guztia ez da ba kontixu gorrotu in-  
darraren kantu bat?

Bai, egi da; baña ez maitasunak berena



VIII URTEA - N.º 87

MARTIA (3) 1962

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

## ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA



ez daukolako; eta bear bada milla bidar ederragoa eta gozoagoa. Baña kantu ori biotz-bera, garbi eta apalak bakarrik entzuten dabe. Eta bere abeslariak ez dira ain ugari eta zalaparta zaleak. Maitasunaren kantu edo abestia gitxi entzun eta kantatzen dabe. Apartekoa izan bear! Eta gaur mundua dagoan lez badago, gosez eta bildurretan dar-dar, orrexegaitik da: maitasun soñu gozoa entzun bearrean, gorrotoaren garraxia eta txilioa entzuten direlako.

Dana dala, Jaungoiko bat dago, eta Au bai, Au sikiran maitetsu eta maitasuna da, eta uste dogu, ordua datorrenean gauzak bear dan tokian ipinten jakingo dabela, Eta bein edo bein gorrotoaren inpernuko burua txikituko dabela. Itzaropen pozgarri au barru-barruan daroe gizon zintzo guztiak. Baita bear be!

Txalogarriak eta aupagarriak munduko periodiko askok arazo onetan egin dabezen indarrak. Euren artean Bilboko "GACE-TA". Gabonak zirealata periodiko onek eka-  
rri ebazan bost ume aren erakutsiak gumu-  
tagarriak dira. Ori da bear dana erakustea.  
Ez Errege egunean pistola eta ametralla-  
dore asko ekartea.

Erretratotxo orretan, Scelba, Italiako mi-  
nistroa ikusten dozue, bertako neskatilla  
onenari medalla bat ipinten. Orrek bai,  
orrek merezi dau, eta Sofia Lorenek baño  
geiago.

Antonio Zubizarreta

# Ume gaizkilleak Espaiñian

Espaiñian bertan, 100.000-ko 248 ume gaizkille dagoz.

Bosteko-lau mutillek dira, seitik amasei urterainokoak.

Amairugarren urteraino geienak mutillak dira ta ortik gora, neskak.

Askotan problema au guregandik urrun bai-legoan jokaturten dogu, New-York, Paris edo Erromako problemea dalakoan. Ta ez dogu jakin gura gure artean, etxean, Madrillen, Barcelona-n eta Bilbon ikusten dana.

## GAIZTAKERIAK.

Mutillak eta neskak egiten dabezen okerkeriak ez dira bardiñak. Mutillen artean lenengoa lapurkeria da. Ta neskan artean immoralidadea. Ona emen, "Vida Nueva" errebistean arturiko numero batzuk: mutillak 100-ko 60,2 lapurrak dira, eta immoralak ostera 100-ko 21. Baiña neskak, 100-ko 40 immoralak eta lapurrak 100-ko 31.

## NUN DAGO SUSTRAIA?

100-ko 10,2 sasikumeak dira ta 100-ko 18 umezurtzak. 100-ko 13 iru edo lau seme daukezan familietakoak dira. Eskola umeak edo eskolara joateko edadean arkituten direan umeak geienak: 100-ko 39,5.

Emendik ara, eta andik ona, zeregin barik, eskeko ta golfo moduan dabiltzanak, 100-ko 28.

## GURASOAK

Ume oneen gurasoak beti dagoz etxetik urrun. Aitak, erdiak baiño geiago obreruak dira, ta amak, krixeda moduan dabiltz. Neska-mutil oneen amarik geienak, 100-ko 86, etxetik kanpora ari dira lanean. Beste asko etxetik kanpora, baiña lanean ez...

Umeak danagaz konturatuten dira, begiak zur daukeez-ta. Ze edukaziño da au?

## ESKOLEA

Utsa ta otza da ume gixaju oneen eskolea. Neskatuen artean 100-ko 34 ez dakie idazten, ez irakurten, ta gañerakoak emendik gora, gitxi. Geienak ez dabe eskolako aterik ikusi. Lanagaitik 100-ko 12,7, nagikeriagaitik 100-ko 76,4, ta beste arazo batzuegaitik 100-ko 10,9.

## FAMILIA

Nolako familietatik datoz gure ume gaizkilleak? Famili pobre edo diru gitxikoetatik 100-ko 67,4; miserian itota dagozenetatik 100-ko 15; familia-mailla onek ume gaizkille geiago emon bear leukez, baiña... Dirutsu izan ez arren, ondo dagozan familiak numero oneek emoten deuskuez 100-ko 14,18; azkenik aberatsak 100-ko 2,4.


## BIZI-LEKUA

100-ko 73,7 uri aundietan bizi dira, ta

100-ko 27,2 erri txikiagoetan, erri aundietan alboetako auzoetan. Ez da au okerraren Moltzoan, jente asko edo larregi dagoen tokietan dabiltz ume oneek zarrapastak ta jakiña, onelako tokietan gauza txarrik onak baiño frankoago eta errezago egiten dira. 100-ko 6,7 etxean erakuspen txarrik ikusten dabez; 100-ko 26,8 erlejiñen alde batera itxi dabe ta bardin egin dabe moralegaz 100-ko 57-k.

## LAGUNAK

"Ezaidazu nogaz zabiltzan, eta esanigadeutsut zer zarean". Arrazoia eukan au eza



ebanak. 100-ko 77,4 ume euren lagunak alperrikaldu dabez. Lagunakaz kontuz! Orain dala urteak lagunak izango zirean bakarrik baiña gaur ez. 100-ko 12,5 ume, zine, telebisiño ta erradioagaitik galduten dira. Ta nok daki, izan lei betirako.

Guraso maiteak, gorde zuen semetxuok baiña ez gurasoak bakarrik, danok gure ta zaindu daiguzan gure umeak, aita ta ama ez dira naikoa. Guretariko bakoitzak ipiñi bear dau bere laguntasuna. Giza osoaren arazoa da au. Barriz egunen batean arpegira jaurtiko deuskue eurengaitik egiten ez genduana.

Leopoldo

# ZURE SEMEAK, ZER?

## SEMEAK EZ DIRA ABEREAK!

Ondo dagoz kriadak, ondo kolejioak; baiña, bear diranean; geiago inoiz be ez. Famili askok kriadak daukeez semeak asi ta eziteko; au ondo dago bearrekoa danean. Askotan gurasoak euren automobilan juergarik juerga dabilzan bitartean seme-alaben edukaziñoa kriadentzat edo kolejio batenzatzat isten dabe; umeak berbetan ikasi baiño len, kolejiora bialduten dabez. Jakin egizue, gurasoak, kolejiorik onena familiko berotasuna, maitasuna dala.



Eta, ez uste izan semeak txakurrak diranik, ez. Guraso askok, batez be andrazkoak, euren eskatzean, euren mai-ondoan, euren aurrian gurago dabe "txakurtxu" bat ikusi euren semetxua baiño. Baiña, gurasoak, zer dirala uste dozuez semeak, abereak? Gurasoak, jakin eta sartu betirako buruan zuen semeak Jaungoikoarenak dirala ta ez zeuonak!

Olaeta-tar Joxe

Familia beti izan da ta beti izango da gizaritearen oñarria. Famili barik ez dago ez santurik, ez Eleizarik, ez gizarterik, ez... (zerurik esatera noian!). Familia gauza isikua eta santua da. Derrigorrekoa dogu gizaritean familiaren izatasun edo esistentzia. Baiña, familiazaz izena jakitea barrik ez da naiko, ez; famili on bat gura ba-dogu osatu edo formatu, familia zer dan ikasi bear dogu, ta ez gitarra-goraberan ezkondu. Amaizakatu liburu eder eta aldizkari ba-dabil gure gizaritean familiko goraberak, familiko problemak oso polito dakarzenak! ANAITASUNA-k beronek be familiazaz beti idazten dau zeozer. Ez atera, ba, atzakirik. Irakurri danok, baiña batez be zuek, ezkontzara zoazenok!

## SEMEAK FAMILIAN

Familiko bierrik gogorrena, gatxena, familia baten eginbearrik aundiena seme-asitea eta seme-ezitea edo edukaziñoa da. Ez dago dudarik.

Gaur, oster, seme asite eta batez be seme-ezite oneek ankar-gora dabiltz toki askotan. Nun dago gatx onen sustraia? Seme-astea ta seme-ezitea beti izan da familian bier mingotza, gogorra; seme-asteak beti sortu izan dauz buruasteak, lorik batego gabak, negar-malkoak. Atsekabe oneek, oster, beti iraungo dabe familiaren erraitean; Jaungoikoaren legea bai-da!...

Gaurko famili askok, danak ez Jaungoikoari eskerrak, bear bearrezkoak diran atsekabe oneek lar-arindu, jaurti egin gura dabe eurenkandik; eta au ez, ez ta ez, ezin daiteke egin! Komodidadeak, aurrerapenak ondo dagoz, eta, gauza onak dira. Aurrerapenak gauza on asko daroa gizaritera, familia; baiña aurrerapen larregiak familia auldu, indarbagekotu, gurasoen kemena gaitzotu, seme-alabenganako maitasuna epelatu egiten dauz. Gaurko guraso askok ez dauke gorputzez eta arimaz gogorrak diran semeak asteko iluziñorik; seme-alabean edukaziñoa estropezutzat artzen dabe. Gurago dabe jaiik jaira ibilli ume mantarrik bage. Semeak euki baiño len, dana lorea, dana atsegiña; baiña ondorengo atsakabea... ez. Nun dago, ba, Kristiñautasuna? Nun Kristoren Kurutzea? Kurutzea jaurti? Ez uste izan gero Kristo-ren denporan be "Kurutzea" inbentorik aundiena zanik, ez! Kristorenak ba gara, artu daigun lepoan kurutzea!



# Aita Imanol-ek Sierra Leona-tik

*Freetown*

*Portua ta Arraiña*

Freetown, Sierra Leonaren kapitala da. Sierra Leona, Euskalerritik asago dago, Terra Nova baiño urrunago. Sierra Leonako nativoak, baltzak dira. Euren aldean, oso gitxi dira kampotik etorri direan zuriak. Sierra Leona, igazko aprilletik errepublika independentea da. Bertoko verbeta ofiziala, inglesa da.

## *Van Camp Fishing Company*

Sierra Leonan, industria gitxi dago. Igazle-  
nean, Nortamerikako kompañia aberats bat  
etorri zan Freetown-era —*Van Camp Sierra  
Leone Limited* deritxona— eta arrain kon-  
gelaziño fabrika aundi bat egiten asi zirean.  
Fabrikea oso aundia da, bere portuagaz ta  
guzti. Oraindiño amaitu barik dago; baiña  
igaztik ona asko aurreratu da.

Iru urte daroetz euskaldun arraintzaleak  
kompañia orregaz lan egiten. Lenengo ur-  
tea naikoa ona izan zan euskaldun arrain-  
tzaleentzat, barku gitxi ibilli zirealako. Bi-  
garren urtea guztiz txarra, embarkaziño la-  
rregi etorri zirealako. Irugarren urtea barriz,  
total ona, aurtengo amazortzi untzientzat fa-  
brikea ondo preparatuta dagoalako.

Amazortzi embarkaziñoetarik amalau Ber-  
meokoak dira; iru Lekeitiokoak; bat Ori-  
koa. Kontzeziño egunean sartu zirean Free-  
town-eko portuan, arraintzu onagaz, lenengo  
barku biak. Euretariko baten nentorren neu-  
-bere. Bildur apurtxu bategaz desembarkatu  
nintzan. “Portua ondo ete dago? —esaten  
neban neure barruan. Aurton-bere, igazko  
modu zantarrean ibilliko ete gara? Egia ete  
da, Freetown-eko preparamentuen gainean  
amerikanoak Madrillen esan deuskuena? Ni  
neu —fraille gizaixo au— zelan biziko ete  
naiz legorrean, segurantza onik ez deust inok  
emon-da?”. Pentsamentu baltz oneekaz ja-  
tsi nintzan moillara.

Gaurko kronikan, artez artez esango deu-  
tsuet zelan aurkitu neban Freetown-eko por-  
tua, eta zelan igaro dodan bertan lenengo  
illabetea.

Arraintzarako preparamentuak, guztiz on-  
do idoro nituan. Obra aundiak egin ditue  
amerikanoak igaztik ona. Moilla bari bat  
egin dabe atuna deskargetako, kongelaziño  
departamentu aundi bat arraiña gogortute-  
ko, depositu luze ta zabal bat arraiña gorde-

teko. Zeredozertxu bat izan ezik, dana dago ondo, aurten etorri direan amazortzi barkuentzat.

Orañarte, danak dabilta arraiña polito atrapetan, Freetown-etik urre urrean. Aurten, sekulako dirurik geien irabaziko dabe barku guztiak. Arraiña ugari dabil; eta prezioa, igazkoa baiño askoz ohea da.

### Gaixoak

Aurten, gizon asko gaixotu jakun. Iñoizko geien. Batez-bere lenengo asteetan. Egunean egunean eroaten izan dot baten bat medikuagana. Bi, iru, lau gaixo egunero osagillearen etxera. Domeketan ta aste eguntan-bardin. Iñoiz, gabaz-bere bai. A larregi zan. Medikua bera-bere arrituta egoan.

Gatx klase asko euki dabe gizaixoak: erreuma dolore gogorrak, iztar aundituak, azur, ausiak, saldarrak, zauriak, ultzerak, malaria, beerazkoa, agiñetako miña, bularrekoa, belarri zarratuak, belauñ zolduak, eta abar. Neugaz joaten izan dira danak medikuarenera, eta neure bitartez azalduten eutsoen berari euren gaixoa.

Mediku bategaz ibiltan gara geien. Zuria da bera. Gaztea. Guztiz ona. Gero, bear danean, berak bialtzen gaitu beste leku batera, naiz beko hospitalera, radiozko plakak atarateko zein garnu ta odolaren analizuak egiteko, naiz goiko hospitalera, bertan ondo egoteko eta ainbat ariñen osatuteko. Ezin obeto gagoz aurten mediku kontuan. Ardu-ra aundiagaz tratetan gaitue; eta antza da-

nez, oso kompetenteak dira danak, zein baltzak zein zuriak.

Legorrean lotu bear dogunontzat, etxe polit bat emon deuskue amerikanoak. Zortzi kuartu daukoz etxeak, kuartu ederrak, euren lavabo ta guztigaz. Berton bizi naiz frai Albertogaz eta Bermeoko mekaniko bategaz. Baiña geugaz batera berton egoten dira —batzuk dempora geiago, beste batzuk gitxiago— errian geratu bear daben gaixoak.

Gutztiz ondo gagoz danok etxe eder onetan. Mutil baltz bik egiten deuskuez etxeko arazoak: jatekoa preparatu, erropak garbitu ta plantxatu, gelak eskobatu, ta abar. Lo ondo egiten dogu, eta jan obeto. Au esaten deutsuet, gaixoen gurasoak trankil egon zaitzen. Orrezaz gaiñera, neu egin nabe maior-domu; eta al dodan guztia egiten dot, berton bizi direaneri ezer falta ez dakioen.


Eta erlegiñoko gauzak zelan? Ori, urrango kronikan esango deutsuet. Bein, auxe barkarrik diñotsuet: puntu orretan-bere polito gabiltzala.


Agur urrengorarte. Iñok idatzi gura ba-deust, ona emen nire zuzenbidea:

*Van Camp Sierra Leone Ltd*

*P. Imanol Berriatua*

P. O. Box 714 —  
Freetown, Sierra Leone





## GIZONEZKOAK

## GORROTATEN DITUEN

## ANDRA-MODUAK

Taiu-bakoak, zastarrak, txaskillak dirala gizonezkoak? Ala andrazkoak dira gogait-eragin eta bakean iñoiz ixten ez dabenak? Mutilleri biotza pozez eta maitasunez ganezka jarten deutesen ondasun mirarizkoak badabez, bai, neskak; baiña kontu larriegiaz erabilten baditue, txartxo artzen dabez mutillek eta orregaitik neska batzuk ez dabe artu-emonik nai. Eta ortxe dago, ba; gizonari gustauten jakon neurria topau arte ez dabe artzen nasaitasunik neska argiek.

### "NEU" neskatillea

Berbetan jarten dan guztietan "neu"-tik asten da. Nai ta nai ez, onetariko neskak derrior bota bear dabe "neu" ori leku daretan: nai nobio ta bien artean erabilten dabezan edozelako autuetan: sateliteak dirala, Konzilio nagusia dala; nai bere inguruan jazoten diran edozein goraberatan: lengusuaren jaiotza edo amumaren eriotza dala; edo nai dan tokian aurkitu: ziñean, trenean... Beti diño "neu"... ta "neuk"... eta beti bardin. Alegin itzelak egiten ditu "berbatxu" ori atzean iñoiz ez ixtearren. Bera da Jaungoikoak sortu daben izakirik nagusiena; mundu guztia be zorrean dago beragaz. Lurreko erregiña bakarra dala emoten dau berbetan dagoanean... Baiña "xera" guztiakaz be ez dau bigunduten bere mutillaren biotza. Mutillak ez ditu gorrotatuten onetariko neskak txatxala batzuk diralako bakarrik, ezipabere gizonari Jaun-

goikoak emon eutson jazarlekua arrapatu gura deuteselako baiño. Gizona da munduko izaki guztien jaun ta errege bakarra... eta emakumeak be bere menpean bizi bear dau. Gizonezkoeri "errege-makillea" kentzea galasota dauke andrak be!

### BIURRIA

Mutilleri barrabankeri guztiak egiteko eskubidea daukela uste daben neskatilek dira "biurriak". Lotsabako batzuk baiño ez dira. Bere mutil-lagun kuadrilleari zita bat emon eta danari ernega-eragin ondoren, nasa barre egiten dauana da "biurria". "Biurria" maitasun kontuetan iru, bost, sei kin gitxienez ibiltzen da. Errez dakie berbea emoten be neska biurriek; baita ederto zelan "nastau" bear diran "baietza" ta "ezetza" be. Ziurrak dira, orraitio, errietak botaten be "biurriak"... Eta bere mutil-laguna sarritan ixten dau egal oaten, salduta, telefonoa edo atxekiegaitik. Guzurti uts bat baiño ez da "biurria". Baiña deskuidoan... igarten badeutso igarri nobioak, ez dau gelaigo ikusterik be gurako. Besteen jostailu ta jugete izateak emoten deutso gizoneskoari miñik geien. Orixe bat astuten dabela nekez!...

### ZOROTXOA

Miragarrik atsekabez heterik daukez alderdi guztiak beti "zorotxo" neskak. Zorotxoak gaixo klase danak mantentzeko apropozko grazia daukola esan lef. Miñberaz etenda egoten da beti, eta une gatx eta txarrenetan, orduntxe, larrituten dabe

geien. Esate baterako, teatro baten asikeran bakean ikusten dabe; baiña erdi-aldera elduten diraneko bete-betea etorten jako buruko-miña edo, ta derrior urten bear izaten dabe amaitu baiño ariñago. Ziñera doazanean nobioari sei biderrez gitxienez aldatu eragiten deutso jesarlekutik, korrienteak "asma" emoten deutsola-ta. Bere gorputz guztia mallotua daukoala-ta diño beti. Nekez topau leiteke neska iñuxenteagorik. Izan dituan, eta izango dituan gaixoak konstatzen pasatuten dau denporea, eta mutilla-

ri, ogi sikuak lez..., gogait-eragiten deutsa. "Zorotxoakin", gura ta be, gatxa da gero konpontzea! Neskatx ondakiñak eta astunak dira bene-benetan onetariakoak, baiña... eurak fiñak eta sedazkoak baiño gogoak diralakotan dagoz...

Onexek dira, ba, gizonari gogait eragiten deutzen emakume-izakerak. Neska-modu oneek garbian oztutzen dabe mutillaren zeozer egin-naia! Baiña kontuan euki, mutillak, batzuetan zuek gauza onetan gogoragoak, gordiñagoak zareela...

# Neskak, kontuz!

*Emakume, gaur legez ez deutso beti begiratu gizarteak*

Aragikeri kontuan, gizonetzkoa beti izan da emakumea baiño jauskorragoa, argalagoa. Emakumea beti izan da garbiagoa, elizkorragoa, zintzoagoa. Baiña emakumea ez da beti egon gaurko gizartean dagoan maillan. Gaur emakumeari, tokirik geinetan beintzat, lotsagaz, errespetoz begiraturen jako. Baiña beti ez da izan olan, ez. Munduko kondaira Nagusiak diñoskunez, Kristo etorri baiño len, toki batzuetan emakumea tresna-moduan ikusten zan; beste toki batzuetan, emakumea adimen bagekoa zala be pentzatu zan. Gizonezkoen atsegin edo grifa txarrak beteteko baiño besterik ezan emakumea; "gauza bat", auxe: "gauza bat" zan emakumea. Baiña, Jaungoikoari eskerrek, emakume kontuak ez eban modu aretan jarraitu: Kristo etorri zan. Bere etorreraz, ondo dakizuen legez, munduaren izakera guztia aldatu eban, eta emakumea be bai. Emakumearen balioa gizonetzkoaren maillan ipiñi eban. Ordundik ona emakumetasuna irabazten etorri da.

*Gaurko gizarteko emakumea.*

Gaurko gizarteak begi onakaz ikusten dau emakumea.

Gizonezko batek kalean zear emakume bat aurkituten ba dau, gizonetzkoa apartatuko da, egalik onena emakumearentzat itxia-gaz; trenean edo automobillan edo tram-bian aurkituten ba dira, gizonetzkoa zutundu egingo da ta bera jarrita egondan lekua emakumeari eskeñiko deutso. Bardin fa-

milian: gaurko gizonetzkoak errespeto aundiz begiraturen deutso familian emakumeeri. Toki guztietan ikusten dogu ondo emakumea.

*Baiña, kontuz. otso "zarrakaz" kontuz!*

Emakumeak, larregi ez igon! Emakume askok errespetua, lotsa eskatuten dabe euren gorputz eta arimentzat; ondo dago. Baiña, zoritxarrez, danak ez dabe lotsa ta errespetua eskatzen. Gizonezkoa beti dozu gizonetzkoa, eta, len esan dogun legez, aragizkorragoa, argalagoa. Emakumeak, batez be gaztetxuak diranak, "goxo-goxo" agertu gura dabe toki guztietan eta danen aurrian; txalogarria asmo edo alegiñ auxe! Baiña goxotasunak, irribarreak neurria daukee beste gauza guztien moduan; jakin egin bear noiz, zelan eta "noren" aurrian (au batez be, neskatillak!) barre egin bear dan jakin egin bear da nori ta zelan begiratu bear dan, batez be batzueri...

Otso asko dabilz bira-biraka zuen onduan, neskak! S. Pedro Apostoluak diñoskunez. "arerioa" ei dabil beti gure onduan bira-biraka. Bai, arerioa! Arerio klase asko dagoz: batzuk "gorputz" da guztikoak dira. Kontuz ibilli bear da onekaz; bestela jan egingo zaitue. Ta, ez uste izan otso edo arerio oneek gizonetzko gazteak diranik baka-ririk, ez; otso onen tartean "otso zarrak", 50, 60... urte inguruko otsoak be ikusten dira, 20, 25... urteko "arditxuak", neskatxuak iruntzi guran... Kontuz!

Idoyaga-tar Xabier.



## ERRUSIAN ZEOZER JAZOTEN DA

Sobietiko gauzetan dabilzan Iparramerikako gizonak, U.R.R.S.-en zeozer aundia jazoten dala diñoskue. Zeatz-meatz iñok ezta-ki zer dan gauza aundi ori, baiña, an jazo diran anormalidadeak ikusita, ezin ukatu leitekela zeozer gogorra, esaten dabe. Zeintzuk dira anormalidade orreek?

1) Krustxef-ek, "antipartidukoen" kontra bere ekinaldi gogorra egiten asi zanean, izen batzuk emon euskuzan: Molotof, Yukof, Kaganobitz, Borotxilof, eta abar, baiña oindiño, gaur arte, iñork ez ditu partidutik kanpora bota. Eurak danak Komunista partiduan dagoz.

2) Gau baten, Molotof Mosku-ra eroan eban ariñeketan. Gobiernuak barriz, esan eban laster etorriko zala ostera be Viena-ra. Baiña, Molotof oindiño Mosku-n dago, Viena-ra etorri barik. Errusian gobiernuaren aginduak zelan eztira beteten? Zer egiten dau Molotof-ek Mosku-n?

3) Pekin eta Mosku-ko uriak eztira antza bardiñak. Uri bien ezbardintasunak benetakoak ei dira. Eta Albania-k be, Albania trikiak be, burges bat dala esan deutso Krustxef jaunari, ta kapitalismuaren alde jokaturten dagola.

4) Azkenez, zetan dago Krustxef? Komunisten XXII'gn. Batzarrean egin ebu-zan zaratak amaituta, orain gizartean ia ezta agertuten. Izillik da... azkenengo urte bi oneetan berbaldiak eta jirabirak ain atsegin izan iakozanean.

Zer da ba, URRS-en gertatuten dana? Egitan, ezin dogu ezer bere esan, baiña susmau leitekena auxe da; Krustxef-ek "demokrazia" oligau gura izan dau komunismuagaz, komunismoa, ostera, ez daiteke demokraziagaz ondo eroan. Komunismuak diktadorea bear dau. Beraz, komunismuaren zuzendariak beti diktadoreak izan bear dabe: Lenin, Stalin,... diktadoreak! Edo bes-telá... oker zabiltz, Krustxef jauna!

## KONGO-N 19 MIXIOLARI IL EBEZAN

Goi-Katanga-n, Gizenga-ren morroiak 19 mixiolari il ebezan, Gabon-Zar egunez, eta gorrotos il be. Urtarrilla-ren erdirarte eziran ezagututen erailleak. Oi danez, eurok il ebezan baita ONU-k botatako 13 abiadore italianuak be.

Kongo-ko parlamentuak mixiolari orreen eriotza jakin ebanean, Gizenga katigatuleko agindua emon eban, nunai egon. Gizenga Lumumba-ren ondorengoa bai-da, extranista, sobiet-zalea.

Nun joko dabe Kongo-ko erriertak? Gaur, Agintza Zentrala dabil ango gauzak zuzendu guraz, ONU-ren indarra bere aldetik daukalarik, Tsonbe ta Gizenga-ren aurka baiña, egin bear gatxa dauko eta ONU-ren laguntziñoagaz egin bear-ko dau zeozer.

## 1962-gn. URTEA, ODOLEZKO URTEA?

Númeroak aztertu daiguzan, Arjelian bakarrik, urtarrilla-ren lenengotik ona 300 il dira, terrorismua dala ta ez-tala. Ori, zaurituak kontau gabe.

Goa-n, ostera induen eta portugesan atkar ikusi-eziñean, 50 gizaseme inguruan il ei dira.

Peru-ko ondamen negargarriak barriz, bi milla edo iru milla gizon-emakume lurperatu ditu. Eta Pakistan-en, naparrerria dala-ta, 600 baiño geiago onezkero il dira, odol tanto barik geratuta.

## KASSEM ETA SUKARNO, KOLONISMUA-REN ARRAGAZ

Sukarno Indonesia-ko agintari dozu. Indonesia Olanda-ren eskuetan egoan, eta esan leiteke naziño barri bat dala, oraintsu lortu dau bere "nortasuna"-ta. Baiña, itxuraz, indonesitarrak eztira orain eurenagaz bakarrik konformaten. Ginea-Barria gura dabe artu, urrian dagola-ta. Beste arrazorik ez bai-dauke. Ginea-koak beste odol berte-ko, beste berbaketa bateko eta beste oituru batzuetakoak dira-ta.

Kassem-eri be orixe emoten deutso buruak edo... biotzak. Kuwait naziñua gura dau eskuratu. Euren oiturak, berbaketa ta istoria Kuwaitkoen antzekoak ei dira, baiña... nok kendu erri bateri bere azkatasuna, berak berez gura ezpadau emon? Bai, Sukarno-ri ta Kassem-eri gaur izartu iaken arra, len izartu iaken Nasser ta Neru-ri andinaikeriaren arra. Edonona da!